

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren aldeko apustua egiten du eleaniztasuna sustatzeko

Euskarabideko zuzendari kudeatzaile Mikel Arregik autonomia erkidegoetako hizkuntz politikako arduradunekin Valentzian berriki egindako bilera batean parte hartu du

Asteazkena, 2016.eko maiatzak 25

Nafarroako Gobernuak garrantzitsua ikusten du autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren eleaniztasuna gizartean sustatzeko. Hala azpimarratu zen autonomia erkidegoetako hizkuntz politikako arduradunek Valentzian berriki egindako bilera batean; bertan izan zen Euskarabideko zuzendari kudeatzaile Mikel Arregi.

Mintegian Valentzia, Katalunia, Balearrak, Euskadi, Galizia, Aragoi eta Asturiasko ordezkariak parte hartu zuten, eta haren helburua hizkuntz propioak dituzten lurraldeetako hizkuntz politikako puntu komunak aztertzea zen, bai eta hizkuntz aniztasuna sustatzeko lehentasunak eta ekintza-lerroak identifikatzea ere.

Alde horretatik, jorratutako alderdietako bat Nafarroa, Valentzia, Aragoi eta Asturias hizkuntz politikako arloko lankidetzarako Protokoloarekin bat egiteko aukera izan zen. Protokolo hori 2007an sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitat-ek eta Galiziako Xuntak, eta 2008an Balear Uharteetako Govern-ek bat egin zuen.

Jarduera-esparru bat da, eta honako hau errazten du: esperientzien eta informazioaren trukea sustatzea, autonomia erkidego bakoitzeko errealitate soziolinguistikoaren azterketei buruzkoa; hizkuntza planak administrazio publikoetan ezartzea; programak jarraitzeko eta ebaluatzeko metodologiak, eta hizkuntz propioak helduei erakustekoak; haren sustapena eta babesa, bai eta hizkuntzen garapenari buruzko informazioa trukatzeko ere informazio eta komunikazioaren teknologietan.



Mikel Arregik eleaniztasunari buruz autonomia erkidegoen artean egindako bilera batean parte hartu du.